EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

# ESTRATEGIA 2020 TXOSTENAREN BAITAN ARGITARATUTAKO DATUEI BURUZKO MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko apirilaren 18an Pertsonentzako Zerbitzuen batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

2016eko urtarrilean, *Necesidades de inclusión social en Donostia*[1] izeneko txostena amaitu zen, estrategia 2020 ekimenaren baitan egin dena. Txosten honek gure hiriko errealitate sozio-ekonomikoa eta demografikoaren inguruko datu garrantzitsuak mahai gainean jartzen ditu eta, horri jarraituz, errealitate horren baitan zein erabaki politiko hartu behar diren antzeman daiteke.

IEK/ CIF P2007 400A/ TEE/R EL 01200 697 10655 n1 2011- 06

Arlo ekonomikoari dagokionez, txostenean aipatzen da aberastasuna ez dagoela era ekitatiboan banatuta auzoetan: *los datos recabados apuntan a la existencia de importantes desigualdes de renta por género y nivel socioeconómico entre diferentes zonas de la ciudad... Se dan importantes diferencias por barrios.* Miramoneko etxe bateko diru-sarrerak 85.000 euro/urteko diren bitartean, Altzan baztez bestekoa 32.500 eurokoa da. Genero desberdintasunari dagokionez, emakumeen diru-sarrerak gizonenak baino % 32,8 baxuagoak dira gure hirian. Honek pobreziaren feminizazioa dakar.

Donostiar biztanleriaren % 10,7 pobrezia-tasa arriskuan dagoela aipatzen da txostenean; hau da, 19.900 pertsona bizi dira gure hirian 852 euro baino gutxiagorekin hilabetero. Pobrezia egoera larriari dagokionez, 8.375 pertsona bizi dira Donostian 568 eurorekin hilabetero (biztanleriaren % 4,5). Laguntza-ekonomikoak jasotzen dituzten pertsonen datuak begiratzen baditugu, txostenak dio 6.361 biztanlek jasotzen dutela RGI-PCV gure hirian eta 233 familiek AGI. Datu hauek adierazten dute, nahiz eta laguntza-ekonomikoak egon, familia askok pobrezia egoeran jarraitzen dutela. Hau ere txostenean aipatzen den errealitatea da: *no todos los grupos que acceden al sistema de garantía de ingresos consiguen evitar la pobreza, resulta especialmente llamativo el caso de las personas menores de edad y podría estar indicando que las cuantías de la RGI-PCV y AGI son insuficientes para cubrir las necesidades de las familias con hijos e hijas menores.*

Esanguratsua da Gipuzkoako datuak, Bizkaia edo Arabakoekin konparatzen baditugu EAEko positiboenak direla. Txostenak argi uzten du azken urteetan politika sozial alorrean hartutako neurriak eta erabakiak klabeak izan direla pobrezia-tasa ez handitzeko: *considerando las prestaciones del sistema de garantía de ingresos vigente en Gipuzkoa (RGI, PCV, AES y AGI) la tasa de pobreza severa se ha reducido un 34,4%, permitiendo que 20.300 personas eviten la pobreza en 2014. Hay que destacar que el sistema de*

1 Oraingoz txostena gazteleraz bidali da.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

*prestaciones vigente en Gipuzkoa ha tenido un papel importante a la hora de amortiguar el impacto de la crisis económica en la población entre 2012 y 2014.*

Pertsona migratzaileen egoerari erreparatzen badiogu, egindako azterketatik ateratako ondorioek argi adierazten dute pertsona hauek egoera larriagoa dutela: *la población extranjera se encuentra en situación de especial vulnerabilidad frente a la pobeza, siendo la tasa de pobreza severa de este colectivo 6,2 veces mayor que la registrada para el resto de la población. Si las personas beneficiarias de las ayudas consiguen situarse fuera del radio de riesgo de exclusión seguramente será gracias a las ayudas sociales y ello conlleva a una dependencia de la protección social que les sitúa en una gran vulnerabilidad ante una situación de recortes o reducción del Estado de Bienestar.*

Harrigarria da, horregatik, Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, martxoaren 21ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak komunikabideen bidez emandako mezua: *AGIak dei efektua egiten du ohikoak ez diren etorkinengan, ez du pertsonen gizarteratzean eraginik eta laguntza berrikusiko da Aste Santua eta gero udal guztiekin.* Horrelako mezuak jarrera xenofoboak areagotzen dituztela uste dugu eta migratzaileak/laguntza ekonomikoa lotura gizarteratzen duten mezu negatiboak dira.

IEK/ CIF P2007 400A/ TEE/R EL 01200 697 10655 n1 2011-06

Gainera, dei-efektuarena datu faltsua da, Foru-Aldundiaren txosten teknikoak irakurtzen baditugu: *la AGI no ha tenido un efecto significativo en el volumen total de la población inmigrante en Gipuzkoa, se ha producido un "efecto salida" en toda España y también en Euskadi. Lo que ha producido la AGI es que ese fenómeno se ha "compensado" y el volumen total de inmigrantes prácticamente no ha bajado en Gipuzkoa.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko jakinarazi du AGI kenduko duela, nahiz eta arlo-sozialeko eragileek esan horrelako erabaki batek ondorio kaltegarriak eragingo dituela gure hiriko familien pobrezia eta gizarteratze egoeran.

EH Bildun uste dugu beharrezkoa dela laguntza sozialen murrizketa horrek donostiarrengan nolako ondorioak izango dituen eta Donostiako Udaleko gizarte-zerbitzuetan zein eragin izango duen aztertzea. Bestalde, Estrategia 2020 txostenean jasotako datuek argi uzten dute pobrezia-egoeran egonda, hiru urteko errolda epea betetzen ez duten pertsonak bazterkeria-egoera larrian egongo direla; batez ere, emakumeak eta adin-txikikoak badira.

Apirileko batzordean zinegotzi ordezkariak ez zuen inongo azalpenik eman honi buruz.

Horregatik, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari aztertu dezala zein eragin izango duen AGI izeneko laguntza-soziala ezabatzeak Donostiako familien pobrezia edo bazterkeria egoeran.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari plan bat martxan jar dezala hiru urteko errolda epea betetzen ez duten baina pobrezia edo bazterkeria egoeran dauden pertsonak nola atendituko diren zehazteko, batez ere adin txikikoen eta emakumeen kasuan.
3. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari pertsona migratzaileen eta diru-laguntzen arteko loturaren inguruko sentsibilizazio kanpaina martxan jar dezala dei-efektuari eta antzeko zurrumurru faltsuei aurre egiteko.

Donostian, 2016ko apirilaren 22an

Olaia Duarte López
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**

IFK/CIF P2007400A/TEE/REL 01200 697 10655 n1 2011-06